

ERASMUS Mugikortasunaren laburpena

Laugarren mailako Ingenieritza Mekanikoko ikasle bat naiz. Aurten Greziako Salonika hirian Erasmus programan parte hartu dut lehen lauilabetean. Egia esan, plaza esleitu baino lehen ez nuen askotan Salonika hiriari buruz entzun, baina lagun batek han Erasmusa egin ondoren, ikasle eta bereziki Erasmus ikasle ugari zeuzkan hiri bat zela aipatu zidan eta azkenean nire mugikortasuna ere han egitea erabaki nuen.

Salonika Greziako bigarren hiririk handiena da Atenas eta gero, milioi bat pertsona baino gehiagorekin. Grezian biztanleria oso sakabanatuta eta hiri txikietan bizi denez, hiri handietako unibertsitateetan herrialde osoko ikasleak biltzen dira eta haien inguruan ikasle giro ederra sortzen da..

Hiru Unibertsitate nagusi daude Salonikan, Mazedoniako Unibertsitatea, IHU eta Aristoteles Unibertsitatea, nire kasuan Aristoteles edo AUTH zen nire helmugako unibertsitatea. AUTHa oso ondo kokatuta dago hiriaren erdialdean eta gehienez ikasleek alokatzen dituzten pisuetatik gertu, gainera Kantina deitutako jantoki bat dauka egunero ikasle guztiei gosaria, bazkaria eta afaria musutruk eskaintzen dituen.

Jantokia unibertsitateak duen eskaintzarik onenetariko bat da, Greziako supermerkatuak garestiak direlako, gainera bizpahiru menu ezberdin eskaintzen ditu bat Beganoa izanik.

Unibertsitateak ere Gimnasio bat dauka, 20 euroko izen-ematea duena, behin apuntatuta zaudela, urte osoan zehar astero hiru aldiz joan zaitezke.

Azpiegitura aldetik unibertsitateak eskaintzen dituen zerbitzuak oso ondo daude eta ekonomikoki asko laguntzen gaituzte, aldiz, akademikoki hainbat arlotan hobetu dezake. Hara heltzen zarenean zure kabuz bilatu behar duzu ia informazio guztia, irakasgaien gelak, irakasleen bulegoak, haien helbide elektronikoa... Irakasgai asko nahiz eta ingelesez eskaini klaseak grekeraz ematen dituzte eta norberak irakasleekin kontaktatu behar du irakasgaia nola emango den jakiteko. Gure kasuan irakasle batzuk ez ziguten mezu elektronikoei erantzun eta haien bulegoetara behin baino gehiagotan joan behar izan genuen haiekin kontaktuan jartzeko. Egia da, "pasotismo" hori lagungarria izan daitekela Erasmusean zehar bidaiak egin ahal izateko baina egonaldiaren hasieran urduri eta galduta sentitzen zara.

Dena den, Salonika Erasmus bat egiteko hiri aproposa iruditzen zait, hasieran non sartu zaren galdetuko diozu zure buruari hiria oso kaotikoa baita, baina aste batzuk pasata etxean bezala sentituko zara.

Nire ustez Salonikara bazoaz ezinbestekoa da PAOKen futbol partidu bat ikustera joatea, ahal izanez gero Gate4-ra, Unibertsitatean antolatzen diren Raveetara joatea, Sofia, Estambul eta Atenas bisitatzea (bus bidez egin dezakezu) eta Grezian zehar ahal duzun guztia bidaiatzea. Guk Aireportuan (Centauron) autoak alokatzen genituen Grezian zehar mugitzeko.